

## ERBESTETU BATEN AUBENAK.

Biyotza penaz, anima triste,  
 Begiyak malkoz beterik,  
 Emen nago ni, pentsamentua  
 Jayotz-erriyan josirik.

Emen nago ni, penaz ta miñez  
 Sort-erriyari begira;  
 Nago, joan nairik aur nitzanean  
 Jostatzen nitzan tokira.

!A zér pena dan egon bearra  
 Sort-erritikan aldenik!  
 Dirudi, batek ez daramala  
 Berekin miña besterik.

Ikusten ditu chori pollitak  
 Chorrochioka sasiyan;  
 Ikusten ditu belcharg<sup>1</sup> ederrak  
 Pozez bustitzen ibaiyan;

T<sup>r</sup> alaz guztiyaz, pena bakarrik  
 Sentitutzen du barruan,  
 Josirik dauka sort-erriyaren  
 Oroitza bere goguan;

Josirik daukan eran, choriyak  
 Kabichoaren oroitza,  
 Dirudiyela sort-lurrarentzat  
 Bakarrik dala bizitza.

¡Nork lezakean aizechoaren  
 Egaan bitartez itzegin!  
 ¡Nork lezakean erri maitea  
 Eramatea berekin!

Au banezake, nere biyotzak  
 ¡Zér poza luken sentiko!  
 Au banezake ¡nola liraken  
 Nere begiyak piztuko!

¡Zér otsarea<sup>2</sup> ¡ai! litzakean  
 Sutuko nigan orduan!  
 Zér atsegiña, zér poz aundiya  
 Sentiko nuken barruan!

¡Jayotz-echea, bere gañean  
 Ikusitzen dan mendiya,  
 Sort-uriyari muñ-egiñikan  
 Igarotzen dan ibaiya.

Ezpañ legorrak busti giñuzen  
 Iturri leyar urdiña,  
 Itzal gozoa ematen zigun  
 Zuaitz ostotsu liraiña.

Ogengabeko<sup>3</sup> aurtasunean  
 Ibiltzen giñan zelaiya,  
 Nola jostatzen giñan-ikus  
 Zuen mendiska parkoiya...<sup>4</sup>

Danak ¡bai! danak, maitaró guziz  
 Dauzka biyotzak gorderik;  
 Beti berakaz oroitutzean  
 Tupotzka dago, pentsarik.

Ainbat maitatzen dituen gauzak  
 Emendik urrun daudela;  
 Jendetartean egonagatik  
 Bakar ta triste dagola...

Zergatik ¿nola poztu liteke  
 ¡Ai! erbestean biyotza?...

Nik, beintzat, ez det sentitzen ezer  
 Ezpada pena mingotza.

KARMELO ECHEGARAY-KOAK.

Santander-en 1884-ko Jorraillean.

(1) Cisne.—(2) Entusiasmo.—(3) Inocente.—(4) Risueño.